

# ELTXO TIGREAREN Prebentzioa

(*Aedes albopictus*)



## EZAUGARRIAK



Eltxo beltza eta txikia da (5 mm inguru). Buruan eta toraxean duen marra zuriagatik ezagutzen da.

**Espezie hau hiritarra da gehienbat. Batez ere egunez aritzen da, eta leku ilunetan ezkututzen da.**

Eragozpen handiak sortzen ditu pertsonengan, bere zitzadengatik gehienbat; mingarriak izan daitezke, eta erreakzio bizia eragin.

**Dengea, Zika edo chikungunya bezalako gaixotasunak eragiten dituzten birusak transmititu ditzake.** Beraz, funtsezkoa da eltxo hau kontrolatzea.

## NOLA SAIHESTU ELTXOAREN ZITADA?

- Mahuka luzeko arropa, praka luzeak janzea eta oinetako itxiak erabiltzea.
- Eltxoa uxatzeko baimendutako produktuak erabiltzea, adibidez DEET, IR3535 edo picaridina.
- Umeen eta emakume haurdunen kasuan, neurri fisikoak lehenetsi behar dira (eltxo-sareak).



## ZER EGIN ZITATZEN BAGAITU?

- **Garbitu ondo zitzadaren eremua urarekin eta xaboiarekin.**
- **Ez da hazka egin behar infektatu ez dadin.**
- **Hotza aplikatu inflamazioa geldiarazteko eta azkura arintzeko.**

Batzuetan biziagoak izan daitezke erreakzioak, eta beharrezkoa izan daiteke osasun-arloko profesional bati kontsultatzea.



## NOLA PREBENTU BERE PRESENTZIA?

Prebentzioa da gakoa, eltxoaren ugalketa eragozteko. Eltxoek ur kantitate txikia behar dute arrautzak erruteko; horregatik, beharrezkoa da aldizka miaketak egitea eta ontziak kentzea:



Saihestu ur-metaketa drainatze-uretan (kainu-zuloak eta estoldak) eta teilatu-hodietan.



Estali etengabe ura atxikita geratzen den zuloak zoru pribatu eta publikoetan.



Hustu, astean bitan, ura metatzen duten ontziak: lorontzien azpiko platerak, pitxerak, kuboak, jostailuak, plastikozko igerilekuak, etab.



Berritu, 2 edo 3 egunean behin, gure animalien edontziak.



Isuri ura hustubideetan astean behin gutxienez, ur-geldiak saihesteko.



Eltxo-sareak leihoetan, deposituetan, ontzietan eta abar erabiliz gero, saihestu egiten da eltxoak sartzea eta arrautzak errutea.

Herritarren eta udal-zerbitzuen (garbiketa, komunikazioa, hirigintza, obrak, urak...) arteko lankidetzak funtsezkoa da eltxo tigreen hedapena geldiarazteko.

## GARRANTZIKOA

Lagun iezaguzu bere banaketa ezagutzen. Eltxo tigre bat ikusten baduzu, atera argazki bat eta bidali app honetara:

<http://www.mosquitoalert.com/>

